

173. FITXA GIPUZKOA - Gizarte-berrikuntzako proiektuei zuzendutako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeak; Gipuzkoan kokatuta dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak, kooperatibak, fundazioak edo elkarteak; Gipuzkoan kokatuta dauden erakunde publiko eta pribatuak; Gipuzkoan kokatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko enpresak eta erakundeak; pertsona juridikoen taldeak

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Gizarte-berrikuntzako proiektuei zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, espezifikoak eta 2025-2026 deialdia](#)

Eremuak: Gizarte berrikuntza

Zenbatekoa: 1.294.268 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/23

Laburpena

Oinarri hauen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoko **berrikuntza sozialeko proiektuetarako** dirulaguntzak ematea arautzea da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. lerroa: zainketa eta jarraitasuneko tokiko zaintza-ekosistemak hedatzeko eta sendotzeko proiektuak.

Oinarri hauen xedea da tokiko zaintza-ekosistemen hedapena eta sendotzea sustatzeko laguntza ekonomikoak arautzea, zaintza-ekosistemak sustatzeko Zaintza HerriLab ereduan oinarrituta (www.zaintzaherrilab.eus), pertsonalizazioa, koordinazio soziosanitarioa eta zaintza komunitarioa hobetzeko helburuarekin. Izan ere, udalerrriak dira zaintza-modu berri baten ardatz egituratzailea, erabakiak hartzeko erdigunean dagoen pertsonarekiko zerbitzu-eskaintza egokituz.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak zainketen tokiko ekosistemen barruan zaintza-eredu pertsonalizatu, koordinatu eta komunitario baterako trantsizioa bultzatzen duten hedapen-eta sendotze-proiektuak implementatzera bideratuta egongo dira. Zaintza pertsonalizatua, koordinatua eta komunitarioa

bultzatzen edo sendotzen duten produktu/prozesuak, metodologiak eta/edo zerbitzuak diseinatu eta testeatzen dituzten proiektu esperimentalak edo ia esperimentalak izan beharko dira.

Proiektu batek dirulaguntza jaso ahal izateko, 30.000 euroko aurrekontua aurkeztu beharko du gutxienez.

2. lerroa: zainketa komunitarioa sustatzeko proiektu pilotuak

Xedea da berrikuntzako proiektu pilotuak abian jartzea bultzatzeko laguntzen emakida arautzea. Proiektu horiek gizarte-zaintza komunitarioa sustatuko dute, helburu komunak eraikitzea erraztuko duten eta komunitatean integratzen diren eskari, behar edo errealitate komunak egituratzea erraztuko duten espazioak sortuz.

Gainera, proiektuek zaintza pertsonalizatua, koordinatua eta komunitarioa sustatu behar dute, modu integralean.

ildo horren barruan, jarduera hauen prestakuntza eta gaikuntza bultzatuko duten zainketa-eskolak hedatzea sustatuko duten proiektuak sartuko dira:

- Autozainketa.
- Familia zaintza.
- Zaintza komunitarioa.
- Zaintzarako tokiko ekosistemak.

3. lerroa: berrikuntza sozialeko proiektu pilotuak

Xedea da pertsona ardatz duen arreta-eredu berrian integratutako produktu, zerbitzu eta/edo metodo/prozesu berrien garapenean eragin potentziala eta/edo egiaztatua duten gizarte-berrikuntzako proiektu pilotuak diseinatzeko eta abian jartzeko laguntzak ematea arautzea, honako esparru hauetan: iraupen luzeko zaintzak, gizarte-babesgabetasuna, desgaitasuna, inklusioa eta haurren eta nerabeen babesa.

Horretarako, jarduera eremu berriak identifikatu, diseinatu eta garatzea ahalbidetuko duten proiektuak lehenetsiko dira, arreta emateko eta zaintzeko eta babesteko modu berriak sustatzera bideratuak, erabiltzaileen bizi-kalitatearen eta laguntza sistema eta babesa sistemen hobekuntzan eragina izango dutenak eta arreta sozial eta sozio-sanitarioko ereduaren bikaintasunean eta iraunkortasunean modu erabakigarrian lagunduko dutenak. Beraz, gizarte-zerbitzuen esparruan berrikuntza sustatzen duten «proiektu pilotuek» soilik eskuratu ahal izango dute laguntza lerro hau. Horretarako, ekimen berritzaileak jarri beharko dira abian, eta ekimen horien ebaluazioak sistema osorako inplikazioak, ezagutzaren trukea eta ikaskuntza ekarriko behar ditu, sustatu nahi diren modernizazio-prozesuak hobeto bideratzeko.

Proiektu bat diruz lagundua ahal izateko, gutxienez 30.000 euroko guztizko aurrekontua aurkeztu beharko du.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak 2026ko azaroaren 30a baino lehen amaitu beharko dira.